

LAZKAOKO BENEDITARREN ARTXIBOA

Erreferentziazko dokumentazio gune bilakatuta, bisita gidatua eskaini digute

 **HISTORIA** / Asier AIESTARAN

80.000 kartel, 35.000 pegatina, 8.000 argitalpeneko hemeroteka... Lazkaoko Beneditarren Fundazioko dokumentazio gunean gordetako funtsak zorabiatzeko moduko kopuruak ditu, eta horregatik da garrantzitsua eduki hori jendearentzat eskuragarri jartzeko egiten duten lana. Gertutik ezagutu nahi izan dugu.

Astelehen goiza da, eta lasai dago Lazkaoko Beneditarren dokumentazio gunea. Miren Barandiaran arduradunak aipatu digunez, ikertzaile askok goraipatzen dute bertan aurkitzen duten patxada hori, hiri handietako burrunbatik aldenduz.

Euskal Herriko historia garaiakidea ikertzen ari diren per-

tsonak izaten dira bisitari gehienak. Orain dela 50 urte Juan Jose Agirrek martxan jarritako proiektua erreferentzia nagusi bilakatu da arlo horretan, eta bertan egiten duten lana gertutik ezagutu nahi izan dugu. Bisita gidatu ederra eskaini digute Mirenek eta Juan Josek, 93 urterekin bertan buru-belarri lanean jarraitzen baitu alegiarrak.

«Hau dokumentazio gune bat da eta bertan orotariko

Ezkerrean, Miren Barandiaran, gordailu nagusian gordetako kartel batzuk erakusten. Eskuinean, Juan Jose Agirrekin batera, dokumentu batzuk begiratzen. Andoni CANELLADA | FOKU

materiala daukagu, batez ere Euskal Herriko azken hamarkadak ezagutzeko. XIX. mendeko bukaeratik hasita, baina batez ere XX. mendeko 1960-1970eko hamarkadetatik gaur egunera artekoa. Lantzen dugun gaia batez ere politika da, politika zentzurik zabalenean hartuta, mugimendu sozialak barne. Eta material hori guztia daukagu ikertzaileen eskura: biblioteka, hemeroteka, kartelak, pegatinak, guk sortutako bilduma dokumentalak eta dohaintzan jasotako artxi-boak», azaldu du Miren Barandiaranek sarrera moduan.

Horrenbeste urtean egindako lanari esker, ikertzaile asko gerturatzen da Goierriko txoko honetara, baina bisitarien profila askotarikoa omen da. «Hasieran batez ere unibertsitate munduko jendea etortzen zen: irakasleak, doktoretza tesia egiten ari ziren ikertzai-

leak... Liburuak edo artikuluko zientifikoak idazten zebilen jendea gehienbat. Gaur egun denetik izaten da: kazetariak, kurtso amaierako lanak egiten ari diren ikasleak... Azken bolada honetan, adibidez, artista asko etortzen dira, gure materiala ikustera inspirazio iturri bezala. Eta kuriositatez hurbiltzen diren norbanakoak ere bai. Gero eta jende anitzagoa etortzen zaigula esan liteke».

Eta zer da ba gehien eskatzen dutena ikertzaile horiek? «Batez ere politika gaiak kontsultatza etortzen dira, gehienbat 70eko hamarkadakoak. 60ko amaiera ere bai, 80ko hasiera, trantsizioa, garai hartako aldaketa politiko eta kulturala... Gehien material mota hori eskatzen digute. Noski, horiek direlako gure fuertekak, beste lekuetan gorde ez direnak eta aurkitzen ez direnak», dio Mirenek.



«Gure materiala oso berria da, horregatik da desberdina. Baditugu ikertzaile euskaldunak, baina kanpotik etortzen direnak ere batez ere material mota horren bila etortzen dira. Orain gutxi izan dugu iker-tzaile frantses bat, ETA-ren inguruko informazio bila. Euskal gatazkaren inguruko ikertzaile asko etortzen dira, horretarako gune egokia delako hau. Uste dut horren inguruko historia gutxieneko sakontasun batekin landu behar baduzu, hemendik pasa beharra daukazula», gehitu du.

MILAKA DOKUMENTU

Behin kokatuta, 2010ean inauguratu zen eraikin berria eza gutzeko aukera izan dugu, monasterioaren ondo-ondoan dagoena. Beheko solairuan bulegoak eta ikerketa gelak daude, eta eskailerak igota heldu gara gordailu nagusira. Es-

Espezializazioa gero eta garrantzitsuagoa da dokumentazio lanetan, eta horregatik, Lazkaon politikan zentratu dira, zentzurik zabalenean hartuta, mugimendu sozialak barne


Duten kartel bilduma oso estimatua da, ikerketa ildo desberdinetarako aukera ematen duelako. 80.000 inguru dituzte eta euskarri horretan espezializatutako pertsona bat

pazio zabala da, soila bezain egituratua, ordena ezinbestekoa baita milaka dokumentu gordetzeaz ari garenean.

«Euskal gaiekin lotutako hemeroteka da gure funts potenteenatariko bat, 8.000 titulu inguru ditu eta beste lekuetan gordetzen ez diren argitalpenak aurki daitezke bertan. Aldizkari edo buletin ezezagunak, zenbaki gutxi eduki dituztenak, zabalkunde txikia eduki dutenak, zenbaki bat edo bi bakarrik argitaratu direnak... Horiek interesgarriak dira urte askoan horrelakoak ez zirelako gordetzen biblioteketan», nabarmendu du Mirenek hemerotekaren garrantziaz.

«Juan Josek bere lanari ekin zionean horri garrantzi handia eman zion: beste lekuetan gordetzen ez ziren argitalpenak gordetzeari. Askotan formatuagatik izaten zen, formatu txikiak edo itsusiak zirelako; eta beste batzuetan izaten zen debekatuta zeudelako, frankismo garaia zen eta gauza asko ezin ziren gorde. Bera horiek biltzen hasi zen eta horregatik hemeroteka honen berezitasuna hori da, beste lekuetan ez dauden gauza asko daudela, 70eko eta 80ko hamarkadetakoak batez ere. Gaur egungoak ere baditugu, jarraitzen dugulako hemeroteka osatzen», gaineratu du.

Goian, liburutegian daukaten inkunableetako bat, XV. mendekoa. Behean, 2010ean inauguratu zuten eraikin berria.
Andoni CANELLADA | FOKU



«Gure beste fuerteetako bat kartel bilduma da. 80.000 inguru dauzkagu: katalogatuta, jendearen eskura, 22.000; eta digitalizatuta orain arte 11.000, oraintsu beste 5.000 egin dizkigute. 80.000 inguru diot, ezinezkoa delako denak banan-banan kontatzea. Kartelak ere oso gutxi gorde izan dira. Oso funtzio puntuala izan dute, momentu jakin batekoa: jarri, kendu eta bota. Baina Juan Josek hasieratik ikusi zuen oso interesgarria izan zitekeela horiek gordetzea, ikertzaileak etorriko zirela horien bila, eta hala xe da. Asko eskatzen dizkigute, bai garai batekoak eta baita gaur egungoak ere. Mota askotako lanak egin daitezke karteekin: bai historikoak, bai politikoak mezuak aztertuz, arte aldetik, hizkuntza al-

detik... Izugarritzko aukerak ematen ditu».

Lazkaoko artxiboa berezi egiten duen beste elementu bat pegatinak edo eranskailuak dira. «35.000 inguru dauzkagu, horiek ere 60-70eko hamarkadakoetatik hasita gaur egunera artekoak. Gaiak, denetik, euskal gaiak diren bitartean. Politikoak, eta aldarrikatzaileak dauzkagu batez ere», dio Mirenek, lanerako euskarri berezia direla onartuz: «Dokumentazio oso suelttoa da, oso banakakoa, eta ez galtzeko garrantzitsua da izen, gai, erakunde eta antzeko guztiak ongi zehaztea».

MARIANO FERRER-EN ARTXIBOA

Azalpenean amaierarako utzi ditugu dohaintzan jasotako bilduma eta artxiboak, «beste mundu bat» direlako, Baran-



diaranen hitzetan. «Hor irizpi-de artxibistikoa erabiltzen du-gu lan egiteko. Artxibo bat ja-sotzen duzunean, adibidez, lehenengo oso ongi begiratu behar duzu zer ekarri dizuten, zer motatako materiala den, nondik etortzen den, zeinen artxiboa den... Hor ikerketa bat egin behar duzu aurretik. Eta gero egin behar duzu ma-terial hori antolatu. Antolatu eta sailkatu. Eskema moduko bat egiten da, sailkapen koa-dro bat egiten da ordena bat emateko, eta gero deskribape-na egiten da. Atalez atal, doku-mentuz dokumentu, multzoz multzo. Serieka, azken batean. Eta deskribapen hori karte-le-kin edo liburuekin egiten de-naren desberdina izaten da. Izenburuak jartzen dira, zeri buruz ari den, datak, autorea... Eta gero deskriptoreak: per-tsonak, erakundeak, lekuak, gaiak... Dena ahal den zehatze-na, gero bilaketak erraz egin ahal izateko».

Komunikabideetan sona izan zuen dohaintzetako bat 2019an hil zen Mariano Ferrer kazetari ezagunaren artxiboa-rena izan zen, justu orain urte bete Lazkaon jaso zutena. Ho-rrelako aukerak nola sortzen diren galdetu diogu Miren Ba-randiarani.

«Denetik dago. Batzuetan gu joan izan gara bila eta beste askotan beraiek ezagutzen gai-tuzte eta atea jotzen dute. Gu-re gaiekin zerikusia baldin ba-dute baietz esaten diegu. Aipatu behar da guk bolunta-rio sare zabal bat daukagula materiala biltzeko. Han eta he-men materiala biltzen ibiltzen den jendea da. Badakite zer in-teresatzen zaigun, biltzen dute eta helarazten digute. Sare ho-rretara ere iristen dira me-zuak, hau edo hura interesa-tzen zaigun galdetuz. Eta beste



batzuetan gu ere joan izan ga-ra galdezka eta gure berri ematera, jakinaraziz interesa-tzen bazaie hemen badaukate-la leku bat materiala egoki gordetzeko», aipatu du.

AUKERAKETA, FUNTSEZKOA

Juan Jose Agirrek, eta berak ekindako bideari jarraipena ematen dion Lazkaoko Bene-ditarren Fundazioak, beti azpi-marratu izan du artxiboa bizi-rik mantendu behar dela, lehendik dutenari dokumen-tazio berria gehituz eta iker-tzaileen beharrei erantzunez. Ez da erronka makala, tekno-logiaren laguntzaz informazio iturriak biderkatzen joan di-ren garai hauetan.

«Gaur egungo arazo nagusia da aukeraketa bat egin beha-rra daukazula. Juan Jose hasi zenean, ‘Euskal Herriko artxi-boa’ egin nahi zuen, horrelaxe esanda. Eta horretarako dena jaso nahi izan zuen. Gai guz-tiak, formatu guztiak... Hori beti izan da ezinezkoa, baina hasiera batean agian gerturatu zintezke. Gaur egun ezinezkoa da erabat. Horregatik, infor-mazio eztanda honek gu behartzen gaitu aukeraketa

Pegatina bildumako ale batzuk. 1960, 70 eta 80ko hamarkadetak mugimendu politiko eta sozialen adierazgarri bikaina dira. Andoni CANELLADA | FOKU

zorrotza egitera eta gero eta espezializatuagoak izatera. Orain dela 20 urte jasotzen ge-nituen hainbat gauza jada ez ditugu jasotzen. Asko espezia-lizatu gara euskal politikan, eta politika inguratzen duten mugimendu sozial horietan. Baina erakundeetatik etor dai-tekeena, edo ofizialtasun apur bat duen material hori guztia jada ezin dugu jaso. Azken ba-tean askoz selektiboagoak izan behar dugu», onartu du Miren Barandiaranek.

Errekurtso humanoak ere mugatuak dira. Juan Josek oraindik lanean jarraitzen du, eta harekin batera hiru pertso-nako taldetxo bat dago. «Bat kartelez eta pegatinez ardura-tzen da, material grafikoaz;


Bertako langileez aparte, boluntario sare zabala dute materiala biltzeko. Badakite zer dokumentu mota interesatzen zaien Lazkaon, eta horrek asko errazten du prozesua

Hala ere, ezinezkoa da heltzen zaien material guztia bertan gordetzea eta jasotzen duten dokumentazio zati bat egokiagoak izan daitezkeen beste gunetara bideratzen dute

beste pertsona bat ehuneko ehunean bilduma dokumenta-la deskribatzeaz arduratzen da; eta nik arduradun bezala apur bat denetik egiten dut, dohaintzen kudeaketa, lan ad-ministratiboa... Horiek gara, ez dago gehiago». Gordeta dau-katen materialaren heren bat bakarrik omen dute deskriba-tuta, atera kontuak zenbat lan duten aurretik.

Horregatik, garrantzi handia ematen diote beste gune ba-tzuekin egindako elkarlanari. «Dokumentazioa etengabe iristen zaigu, baina iristen zai-gun guztiak ez du hemen bu-katzen. Gauza asko iristen zaizkigu guk hemen ezin ditu-gunak gorde, gaia ez delako gurea edo errepikatuta dauka-gulako. Kasu horietan beste zentro batzuei eskaintzen die-gu material hori. Sare bat dau-kagu inguruko beste doku-mentazio zentro batzuekin eta haiei eskaintzen diegu, gal ez dadin. Zeren gauza batzuk ba-dakigu gordetzen ez badira galdu egingo direla. Urte asko dira lan honetan, eta jada eza-gutzen ditugu eman daitez-keen egoera desberdinak».

Eta digitalizazioaz galdetuta, berriz ere aukeraketaren ga-rrantzia nabarmendu du Ba-randiaranek, «dena ezin dela-ko digitalizatu». «Paperarekin egiten dugu lan %99an. Orain-dik paperez hitz egingo dizu-gu. Lehenik egin behar dena da antolatu eta deskribatu. Eta behin hori eginda, hurrengo pausoa da digitalizatzea. Ho-rrela lortuko duzu ondorengo bilaketak erraztea. Leku ba-tzuetan egin izan da alderan-tziz, lehenik digitalizatu eta ondoren deskribatu, baina guk ez dugu uste hori denik bide egokiena. Guk adibidez, digitalizazioa karte-le-kin baka-rrik egiten dugu oraingoz».



Andoni CANELLADA | FOKU

JUAN JOSE AGIRRE, ORAIN DELA 50 URTEKO ILUSIO ETA GRINA BERDINAREKIN LANEAN

Lazkaoko dokumentazio gunera egindako bisitan sekulako poza eman digu Juan Jose Agirre bertan ikusteak. 93 urterekin, oraindik ilusioz beteta, ez du bi aldiz pentsatu gurekin eseri eta proiektua martxan jarri zueneko garaia gogoratzea proposatu diogunean. Memoria ariketa harrigarria eginez, hainbat gertaera eta pasadizo oroitu ditu gure belarrien gozamenerako.

Bere ibilbidea ezagutzen ez duenarentzat, eta asko laburbilduz, esango dugu Agirreren bizitza

Montserrateko monasterioan aldatu zela betiko, 1970ean –beneditarren fundazioak bere webgunean eskegita du Joan Mari Torrealdaik idatzi zuen biografia–. Hamabost urtez Lazkaoko ikastetxean irakasle izan ostean, hura itxi zenean, beste bide bat aukeratu behar izan zuen, eta berak medikuntza ikasketak egin nahi zituen arren, azkenean bibliotekonomia ikastera joan zen Kataluniara 40 urterekin.

«Oso lagun eta irakasle onak izan nituen. Montserrateko kardinal bat egin zuten Vaticanoko artxiboko

zuzendari. Gogoratzen naiz nola behin haietako batek esan zidan ‘*ven aqui que te voy a enseñar algo*’. Armairua ireki eta hantxe zeukan gordeta Euskal Gobernuaren aurreneko buletin ofiziala, Jose Antonio Agirre lehendakaria zenekoa. Niretzat hura ikustea sekulakoa izan zen. Joan Mari Torrealdai zenak ere gogoratzen zuen garai hartako esaldia: ‘guretzat, Jaungoikoa eta gero, handiena Jose Antonio Agirre’. Euskal Gobernua erbestean, debekuak... Hura ikusi nuenean, pentsatu nuen: ‘katalan

hauek gauzak gordetzen ari dira, Euskal Herriko dokumentuak ere bai, eta gu ez gara ari ezer egiten’. Hutsune handia sentitu nuen barruan, eta filosofia ikasle garaian eskuz esku pasatzen genituen debekatutako paper haiekin gogoratu nintzen, ‘*una vez leido, pasalo*’ zioten haiek, inor ez zela haiek gordetzen ari eta norbaitek egin beharra zeukala. Etorkizunean memoria historikoa izango zela hori. Horixe izan zen abiapuntua», gogoratu du Agirrek.

Gogoratu bakarrik ez, orduan abiatu zuen abentura horren adibide konkretuak ere prest ekarri ditu guri erakusteko. 1945-48 urteetako “Euzko Deya” zortzi orriko paper fina, esaterako. «Isilka zabaltzen ziren, bestela kartzelara sartzen zintuzten eta sekulako jipoia. Ez al da harribitxia?». 1964an ETak ateratako lehen komunikatuaren ale fisikoa ere erakutsi digu, Jose Felix Azurmendiren informazioarekin osatua, eta 1968ko “Euzko Deya”-ren ale bat, poliziak Lazkaon egindako erregistro baten berri emanez –gerora beste batzuk ere etorriko ziren–.

Kontatu digu Jesus Maria Leizaola eta Martin Ugalde nola joan zitzaizkion gose ikaragarritz “Euzko Deya” egunkariak 1936ko gerra garaian ateratako aleak ikustera; nola Txillardegik goraipatzen zion biltzen ari zen dokumentazio guztia; eta 2005ean izandako azken miaketan jendarme batek nola galdetu zion harrituta ea bilketa lan hura guztia berak bakarrik egin zuen.

«Etxe guztia paperez beteta edukitzen nuen: pasilloa, hutsik zeuden gelak... Ikertzaileak etortzen ziren eta lotsa ere ematen zidan hura horrela ikusteak. Mari Karmen Garmendia etortzen zen adibidez, doktoretza egiten ari zela, eta gogoratzen naiz nola esaten zuen beti horiek ez zirela baldintzak lanerako», gogoratu du irribarre batekin.

Horiek denak pasatuta, asko balio du Juan Joserren lasaitasunak, bere bulego dotoretik artxiboaren gaur egungo egoitza modernoa ikusita.